


Paperak eta paperak... hiritarren munduan sartuta



Hizkuntzen trataera bateraturako
materialak
DBH4 irakasleen koaderno
Arantza Intxausti. Cristóbal Gamón BHI.

AURKIBIDEA

- 1. Proiektuaren justifikazioa**
 - 1.1 Azalpen, argudio eta instrukzio testuen kokapena**
 - 1.2 Azalpen, argudio eta instrukzio testuen interes didaktikoa**
- 2. Proiektu bateratuaren berezitasunak:**
 - 2.1 Komunikazio egoeraren deskribapena**
 - 2.2 Proiektuaren ardatz komun**
 - 2.3 Helburu orokorrak**
 - 2.4 Oinarrizko gaitasunen garapena**
- 3. H1: Euskara**
 - 3.1 Instituzio eta eskola munduekin lotutako agirien carpeta**
 - 3.2 Komunikazio egoera**
 - 3.3 Ibilbideak**
 - 3.4 Testu generoen errepertorioa**
 - 3.5 Unitatearen ardatza**
 - 3.6 Helburu didaktikoak**
 - 3.7 Edukiak**
 - 3.8 Ebaluazio-irizpideak**
 - 3.9 Ebaluazioa**
 - 3.10 Proba eredua**
 - 3.11 Unitate didaktikoaren jarduerak bideratzeko orientabideak**
 - 3.12 Denboralizazioa**

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1 Azalpen-testua, argudio-testua eta instrukzio testuen kokapena

Nahiz azalpen-testuak, nahiz argudio-testuak, nahiz instrukzioak egunero eta etengabe agertzen zaizkigun testuak dira. Azalpen-testuak ezagutza handitzeko asmoz, errealitatea ulertzeko eta informazioa bidaltzeko erabiltzen ditugu. Argudiaketak konbentzitzea du helburu, hau da, igorleak defendatzen dituen ideiei edo tesiei solaskideen atxikimendua lortu nahi du, eta hirugarren testu tipok, instrukzioak, gure jarduerak arautzeko balio digu.

Erabilpen eremuari dagokionez, argudio- testuak eta azalpen-testuak eremu zientifiko eta didaktikoan erabiltzen dira eta instrukzioarekin bat egiten dute gizarte eremuan.

Beraz, proiektu hau gizarte eremuan kokatzen da, norbanakoa eta gizartearen arteko erlazioen eremuan. Helburua esparru administratiboaren agiriak landuz, ikasleek mundu hori ezagut dezaten eta bertan mugitzeko gai izan daitezen izanik

1.2 Azalpen, argudio eta instrukzio testuen interes didaktikoa

Azalpen-testuak, argudiozkoak eta instrukzioak lantzea unitate didaktiko honen helburua litzateke. Nahiz eta ikasleek ez ohartu, egunero erabiltzen dituzten testuak dira eta bizitzan zehar erabiliko dituzte.

Testu hauetan trebatzea gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna garatzea litzatekez, zeren eta, egungo egoeran, eskola arloan eta etorkizunean lan munduan, ingurua aztertzeke eta bertan parte hartzeke balioko baitie. Hau da, testu hauetan trebatzeak gizartearen parte izaten eta autonomia lortzen lagunduko die .

2. Proiektu bateratuaren berezitasunak:

2.1 Komunikazio egoeraren deskribapena

Gizakiok gizarte barruan bizi gara eta hau antolatzeko, hainbat erakunde eta instituzio sortu ditugu: udaletxeak, foru aldundiak, gobernuak, parlamentuak... Modu berean gure bizimodua ere antolatu dugu, lehenengo etorkizunerako prestatzeko urteak pasatzen ditugu eskolan, institutuan eta unibertsitatean; geroxeago lanean, eta bai batean, bai bestean instituzioak era badaude, adibidez organo gorenak edo sindikatuak.

Gure inguruko instituzioen eta pertsonen arteko erlazioak ezagutzea eta sakontzea da proiektu honen helburua, batez ere, esparru administratiboaren agiriak landuz. Proiektuak ikasleek mundu hori ezagutu dezaten eta bertan mugitzeko gai izan daitezen nahi ditu .

Hau dela eta, azken ekoizpena H1ean eskolaren eta instituzioen esparruekin lotutako agiri-karpeta sortzea izango da eta H2an , lan munduarekin lotutako agiri-karpeta.

2.2 Proiektuaren ardatz komuna

- Tipoa: azalpen-testua, argudio-testua eta arautegia.
- Eremua: instituzio, eskola eta lan eremuak
- Gaia: instituzio, eskola eta lan munduekin erlazio administratiboak.

2.3 Helburu orokorrak

- Testu administratiboak bereiztea
- Instituzio eta eskola munduekin lotutako testuak ezagutzea eta erabiltzea (akta, eguneko gai-zerrenda, txostena, instantzia, erreklamazioa...)
- Lan munduarekin lotutako testuak ezagutzea eta ongi erabiltzen jakitea (aurkezpen gutuna, gomendatzeko gutuna, eskertzeko gutuna, uko egiteko gutuna, kurrikuluma...)
- Esandako testuetan erabiltzen diren baliabideak, elementuak eta ezaugarriak ezagutzea eta ikertzea.
- Azalpen-testuak eta Argudio-testuak bereiztea.
- Instituzio eta lan munduetara gerturatu, haien antolakuntza eta erabilpena ezagutzuz
- Gaitasun linguistikoa hobetu nahian, norberaren ekoizpen linguistikoak zein besteenak baloratzen jakitea.

2.4 Oinarrizko gaitasunen garapena

Erkidegoko curriculum berrian argi adierazten den legez, oinarrizko hezkuntzaren helburua honako hau da: pertsona helduak heztea, euren ibilbide akademiko edo profesionalean aurkituko dituzten edozein egoerari aurre egiteko gai izango diren pertsonak heztea. Horretarako, irakasgai guztiek, hizkuntza-irakasgaiak barne, bizitza osoan ikasten lagunduko duten oinarrizko zortzi gaitasunak garatzen lagundu behar dute, gaitasun horiei esker, pertsonaren errealizazioa, garapena, herritartasun aktiboa eta gizarteintegrazioa lortuko baitira.

Kurrikulum berri horretan hauxe jotzen da oinarrizko gaitasuntzat: “jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzari egokituia, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrezkotzat jotzen dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko”.

Dakigunez, hizkuntzek garatzeko balio dute curriculum berriak ikasleen garapen pertsonal eta intelektuala lortzeko beharrezkotzat jotzen dituen oinarrizko gaitasun guztiak “tresna pribilegiatuak baitira komunikatzeko, mundua irudikatzen, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko”.

Proposatutako HTB proiektua, ikasleen oinarrizko gaitasun horietatik gehienak garatzeko asmoarekin gauzatzen ari da. Hori dela eta, proiektu honetako ariketetan honako gaitasun hauek landuko dira argi eta garbi:

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

3. H1: Euskara

3.1 Instituzio eta eskola munduekin lotutako agirien karpeta

Unitate honen azken ekoizpena instituzio eta eskola munduekin lotutako agirien karpeta litzateke. Zehazki, egoera bati buruzko txostena egin, eta Udaletxeko sail batera edo Organo Gorenari zuzendutako instantzia baten ekoizpena.

Horretarako, iturri desberdinetako informazioa bilatu, begiratu eta aztertuko ditzuzte agiria sortu aurretik.

3.2 Komunikazio egoera

Gaia: **Instituzio eta eskola munduekin erlazioak**

Igorlea: **4.DBHko ikasleak, hiruak jarrita**

Hartzailea: **Udaletxeko sail bat edo Organo Gorena (aukeran)**

Kanala: **idatzita**

Asmoa eta helburua: **egoera bati buruzko txostena eta dagokion instantzia sortu**

Argitalpen lekua: **Udaletxeari zuzendutako korreoa edo aurkezpen publikoa Organo Gorenaren aurrean**

Eremua: **instituzio eremua edo eskola eremua**

3.3 Ibilbideak

- Proiektuaren aurkezpena eta negoziaketa
- Proiektuari dagozkion gaitasun diskurtsibo, soziolinguistiko, linguistiko eta estrategikoen ezaugarrien analisia
- Testuaren ekoizpena.:testuingurura egokitzea, plangintza, testu egokitzapena, berrikuspena.
- Proiektuaren aurkezpen publikoa
- Ebaluaketa (Proiektuaren hasieran, jarraipenean, eta amaieran)

3.4 Testu generoen errepertorioa

- Araudiak
- Aktak
- Eguneroko gai-zerrendak
- Txostenak
- Instantziak
- Erreklamazioak

3.5 Unitatearen ardatza

MOTIBAZIO JARDUERA 1. jarduera: Zer egingo duzue ikasturtea amaitzean?
1. LAN-SEKUENTZIA- UDALAREKIKO HARREMANAK 2. jarduera: Udaleko arloen egituraketa 3. jarduera: Eskabide gutuna
2. LAN-SEKUENTZIA- HIZKUNTZA INSTITUZIOEKIKO HARREMANETAN 4. jarduera: Ereduak aztertu 5. jarduera: Hizkera argia, zuzena eta ulerterraza erabili 6. jarduera: Konbentzioak aztertu 7. jarduera: Teknologia berriak erabili
3. LAN-SEKUENTZIA- IDAZKI FORMALAK 8. jarduera: Egitarauak 9. jarduera: Eskabide gutuna 10. jarduera: Lan eskaerarako aurkezpen gutuna eta Curriculum vitae 11. jarduera: Eskola Kontseiluko akta 12. jarduera: Hainbat idazki mota
4. LAN-SEKUENTZIA- 13. jarduera: Azken ekoizpena: egoera aukeratu, nori zuzendu... 12. jarduera: Txostena errebasatu
AUTOEBALUAZIOA

3.6 Helburu didaktikoak

- Instituzioekiko harremanen inguruan landutako hizkuntzaren ezaugarriak, konbentzioak nahiz horien erabilerak arautzen dituzten erregelak ezagutu, eta emandako testuetan nahiz norberak sortutakoetan zuzen aplikatu.
- Mezu batek bere baitan dakartzan aukera eta baldintza askotarikoak interpretatuz baldintzei egokitzen zaizkien erabakiak autonomiaz hartu eta haien berri argi eta zehatz idatziz eman.
- Hainbat esplorazio-teknika aplikatuz, Interneten informazio jakinak efikaziaz bilatu eta bilaketaren emaitzak argi eta zehatz adierazi.
- Dokumentu formalak sormenez idatzi, komunikazio-egoerako elementuei eta haien ezaugarriei egokituz eta edukia argi, zehatz eta zuzen adieraziz.

3.7 Edukiak

- Kontzeptuak
 - Instituzioekiko harremanetarako hizkeraren ezaugarriak:
 - ✓ Hizkuntza-aldaerak
 - Erregistro motak
 - Euskalkiak
 - Euskara batua
 - ✓ Komunikagarritasuna
 - ✓ Konbentzioak
 - Igorle/hartzailearen tratamendua (persona gramatikala eta kortesia adierazteko bideak).
 - Laburtzapenak (siglak, ikurrak eta laburdurak).
 - Testu ez jarraiak: inprimakia, beka eskaera...
 - Iragarkia
 - Eskabide-gutuna
 - Curriculum Vitae
 - ✓ Testuaren propietateak
 - Egokitasuna
 - Koherentzia
 - Kohesioa
 - Zuzentasuna
- Prozedurak
 - Testuaren zentzu orokorra eraikitzea
 - Informazioen arteko erlazioa ezartzea
 - Testuko informazioen eta norberaren ezagutzen arteko erlazioa eta kontrastea egitea
 - Datak, orduak eta laburtzapenak ondo idazteko erregelak
 - Komunikagarritasunaren erregelak
 - Emandako informazioa eta jardueran eskatzen dena ulertzea
 - Ezaugarri esanguratsuak identifikatzea
 - Informazioa bilatzea eta hautatzea (bilatzaileak, helbide elektronikoak)
 - Testuak prozesatzea (dokumentuak gorde, inprimatu ..., formatoa eman, zuzentzaile ortografikoa erabili)

- Planifikatzea
- Testualizatzea
- Berrikustea
- Jarrerak
 - Ezagupena baloratu
 - Informazio bilatzen eta hautatzen jakitea baloratu
 - Norberaren akatsak onartu eta zuzentzeko gaitasuna izan
 - Talde-lana baloratu
 - Besteen eta norberaren ekoizpenak baloratu

3.8 Ebaluazio-irizpideak

- Instituzioekiko harremanetarako hizkeraren ezaugarriak bereizten ditu
- Datak ondo idazteko erregelak ezagutzen eta erabiltzen ditu
- Orduak ondo idazteko erregelak ezagutzen eta erabiltzen ditu
- Laburtzapenak ondo idazteko erregelak ezagutzen eta erabiltzen ditu
- Testuaren zentzu orokorra eraikitzen badaki
- Testu ez jarraien emandako informazioa eta jardueran eskatzen dena ulertzen du
- Testu ez jarraien ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu
- Interneten informazioa efikaziaz bilatu eta emaitzak argi eta zehatz adierazten ditu
- Dokumentu formalak (eskabide-gutuna, curriculum vitae, instantziak, gai-zerrenda..) sormenez idazten, komunikazio-egoerako elementuei eta haien ezaugarriei egokituz eta argi, zehatz eta zuzen adierazten daki
- Ezagupena baloratzen du
- Norberaren akatsak onartu ondoren zuzentzen ditu

3.9 Ebaluazioa

Puntu honi dagokionez, prozesuaren ebaluazioa eta azken ebaluazioa bereiziko dira. Hau da, unitatea garatzeko ikasleek egindako lanaren ebaluazioa eta azken ekoizpena eta froga objetiboa.

Beraz, proiektuaren azken balorazioa ebaluazio batukari baten emaitza izango da, eta honela banatuko da:

- Azken ekoizpenak: % 50
- Eguneroko lanak (jarduerak eta jarrerak): %20
- Froga objetiboak: %30

PROIEKTUAREN FROGA: “Paperak eta paperak”

Izen-abizenak:

Taldea:

1. Jarduera:

2010/07/12 | EKIN LANARI | Astialdiko BEGIRALEAK eta ZUZENDARIAK
**BEASAINGO GAZTELEKURAKO HEZITZAILEA BEHAR DA
[ORDIZIA | Berri gehiago irakurri >>](#)**



Beasaingo Urbietako Etxea

Baldintzak:

- * 16 urte izatea
- * Euskara menperatzea

Interesatuak bidali kurrikuluma ondorengo helbidera:
aisihezi@hotmail.com

2. Jarduera:

Zure ikastetxean kultur astea ospatuko da. Egin ezazu ospakizun horren berri emango duen iragarkia. Kontuan izan nola idazten diren datak eta orduak.

3. Jarduera:

Ikastetxeko zuzendariari eska iezaiozu freskagarri makina jartzea

Froga ebaluatzeko irizpideak

- Sortutako curriculumak lan eskaintzarako egokia da
- Curriculumak ordenaturik dago eta argia da
- Curriculumak behar dituen datu guztiak ditu: datuak, ikasketak, ikastaroak, hizkuntzak, laneko esperientzia...
- Behar den erregistroa erabili da
- Egitarauen ezaugarriak dituen, argi eta labur adieraztea, non eta noiz gauzatuko den. Data eta orduaren adierazpen zuzena
- Eskabide gutunaren ezaugarriak bete ditu:
 - Komunikazio asmoa garbi ageri da
 - Konbentzioak: Igorle/hartzailearen tratamendua, data eta tokia, laburtzapenak
 - Edukia eta bere antolaketa
 - Hizkera
 - Diseinua

Azken ekoizpenaren ebaluaziorako irizpideak

- Eskabide gutunaren ezaugarriak bete ditu:
 - Komunikazio asmoa garbi ageri da
 - Konbentzioak: Igorle/hartzailearen tratamendua, data eta tokia, laburtzapenak
 - Edukia eta bere antolaketa
 - Hizkera
 - Diseinua

Eguneroko lana eta jarreraren ebaluaziorako irizpideak

- Eguneroko lana arretaz eta zuzen betetzen du
- Talde lanean parte hartzen du
- Taldeko kideen iritzia errespetatu eta baloratzen ditu
- Autoebaluaziorako eta zuzentzeko jarrera egokiak garatzen ditu

3.11 Unitate didaktikoaren jarduerak bideratzeko orientabideak

Unitate honetan proposaturiko jarduerak instituzio eta eskola munduekin lotutako testuak ezagutzera eta erabiltzera zuzenduta daude, kontuan izanik erabilitako jarduerak alda daitezkeela taldeen beharren arauera.

Jarduera batzuk aurrera eramateko ordenagailuak erabili beharko ditugu zenbait web orri kontsultatu behar izango dutelako.

Ekintza gehienak taldeetan egiteko pentsatu dira, talde-lana bultzateko asmoz. Honela, negoziazioaren bidez, ikasleak haien iritzia eman, besteenak entzun eta hainbat iritzi onartzeko trebatzen dira, ikaslea ikasketa-prozesuaren parte da, eta irakaslea laguntzailea izanik.

Proiektu bukaeran azken ekoizpena hizkuntzaren ikuspuntu komunikatiboan oinarritzen da, eta aldi berean, gizarteratzeko tresnak ematen dizkio ikasleari.

Jarduerak bideratzeko orientabideak:

1. Jarduera:
 - a/ Geurea ez den beste kultura bateko persona baten ikuspuntutik deskribatuta, egun Europan bizi dugun bizi-moldea eta heziketa-prozesua azaltzen da. Tonu ironikoa darabil buruzagiak, europarren bizitzarako prestakuntza deskribatzeko. Galdera sorta ahoz eta talde handian egin daiteke.
 - b/ talde txikitan eskolako AJA aztertu, ondoren talde handian eztabaidatu.
2. Jarduera: Udaleko arloen egituraketa
 - a/Jarduera honetan emandako koadroan ikusiko dute ikasleek zerbitzu publikoak kudeatzeko Udala arlotan egituatuta egotten dela. Arloen egituraketa irakurri eta testuko hitz edo kontzeptuak argitu beharko dituzte ikasleek lehenik.
 - b/ Errenteriako udalaren web orrian sartu eta atalak ikusi eta apuntatu.
3. Jarduera: Jarduera honetan gazteak eta administrazioa elkarrengana hurbiltzea helburu duen elkarrizketa baten zatia dugu aztergai. Ulermen-kompetentzia garatzeaz gain, jarraian proposatzen zaien eskutitza idazteko, gaiari buruz oinarritzko ezagutza bereganatzea eta edukia adierazteko lexiko egokia edukitzea.
4. Jarduera: Ikasleen gizarteratze-prozesuan berebiziko garrantzia du gizarte eremu horretako mezuak ulertzeko eta sortzeko gaitasunak garatzeak. Ikuspegi horretatik, instituzioek komunikaziorako erabiltzen duten hizkeraren zenbait ezaugarri ezagutuko ditu ikasleak beraiekiko komunikazio-harremanak eraginkortasunez egiteko. Bi helburu ditu jarduera honetan proposatutako zereginak: testu horietan aipatzen diren erakundeei buruzko ezagutza kulturala zabaltzea eta interneten informazio jakinak modu autonomoan bilatzen eta hautatzen ikastea.
5. Jarduera:
 - a/ Gramatikalki zuzenak izateak ez du ziurtatzen testua ulertteraza denik. Ulermena zaildu dezakeen erabilera deseroso baten adibidea emango diegu: ukapen gehiegi duen testua.
 - b/ Komunikagarritasunean eragiten duen hainbat alderdiri buruzko ariketa
6. Jarduera. Konbentzioak aztertzen

Azken jarduera hauek osatzeko: INSTITUZIOEKIKO HARREMANETARAKO HIZKERAREN EZAUGARRIAK ERREPASATZEA KOMENIKO LITZATEKE:

- **Aldaera estandarra**
- **Lexikoa: eremuari eta gaiari dagokiona/ lexiko-sorkuntzarako bideak**
- **Konbentzioak**
 - **Igorle/hartzailearen tratamendua, Kortesia: ahalera ordez : agintera, geroaldia**
 - **Data**

- **Laburtzapenak: SIGLAK, IKURRAK ETA LABURDURAK**

- **Hizkera argia, zuzena eta ulerterreza:**

- **Baiezko esaldiak hobe ezezkoak baino**
- **Ez da komeni deklinabide-atzizki berdinak elkarren ondoan jartzea**
- **Esaldi luzegiak zatitu, hartzaileak ulertzeko**

Lexiko sorkuntzarako bideak ere aipa daitezke

Ariketa osagarriak euskaljakintza.net web orrian

7. **Jarduera:** Internet: informazio iturri eta komunikazio kanala. Bi helburu nagusi:
a/ euskarri digitaletik datozen informazio-iturriak eraginkortasunez erabiltzea
b/ erabaki eraginkorrak hartzen ikas dezaten
Jarduera bakoitzean markatutako helbide elektronikoa edo web-orria erabili beharko dute informazioa eskuratzeko.
8. **Jarduera:** Egitarauak: Data eta orduaren adierazpen zuzena
a/ errenteriako web-orrian gazte informazio buletinaren aukera dezatela egitarau bat.
b/ zuzenketak egin
c/ iragarkia egin dezatela
9. **Jarduera:** Eskabide gutuna.
a/ Hutsuneak bete
b/ Eskabidea ikastetxeko zuzendariari egin
c/ Akatsak zuzendu, eskabide-gutuna bi eratan emanez.
10. **Jarduera:** Lan-eskaerarako aurkezpen gutuna eta Curriculum vitae
Informazioaren hautaketa, testuak aztertu eta lanpostuen ezaugarriek markatuko diete zer datu eman eta zer baztertu.
11. **Jarduera:** Bilera baten akta aztertu, eta eskatu ikastetxeko OOGren azken akta.
Biak konparatu
12. **Jarduera:** Hainbat idazki eredu [www. agiriak. net](http://www.agiriak.net) helbideak, aztertu eta galderak erantzun
13. **Jarduera:** Azken ekoizpena:
a/
 - **Komunikazio egoera definitu**
 - **Ideiak zerrendatu eta hautatu**
 - **Edukia antolatu**
b/ Planifikatu ondoren, idatzi gutuna
14. **Jarduera:** Gutuna bidali baino lehen ziurtatu datu guztiak ondo daudela, akats ortografikoak zuzendu, eta azkenik, bidali

3.12 Denboralizazioa

MOTIBAZIO JARDUERA 1.jarduera: zer egingo duzue ikasturtea amaitzean?	2	2 saio
1.LAN-SEKUENTZIA-UDALAREKIKO HARREMANAK 2.jarduera: udaleko arloen egituraketa 3.jarduera: eskabide gutuna	1 2	3 saio
2.LAN-SEKUENTZIA-HIZKUNTZA INSTITUZIOEKIKO HARREMANETAN 4.jarduera: ereduak aztertu 5.jarduera: hizkera argia, zuzena eta ulerterraza 6.jarduera: konbentzioak aztertu 7.jarduera :teknologia berriak erabili	2 2 2 2	8 saio
3.LAN-SEKUENTZIA-IDAZKI FORMALAK 8.jarduera: egitarauak 9.jarduera: eskabide gutuna 10. jarduerak:lan-eskaerako aurkezpen gutuna eta Curriculum vitae 11.jarduera:eskola kontseiluko akta 12.jarduera:hainbat idazki mota	1 2 2 1 1	7 saio
4.LANSEKUENTZIA-AZKEN EKOIZPENA: EGOERA AUKERATU ETA BIDALI 13.jarduera:egoera aukeratu eta txostena idatzi 14.jarduera. txostena erreparatu AUTOEBALUAZIOA	4 0,5 0,5	5 saio

GUZTIRA 25 SAIO

